

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 4koa, Etxepare Euskal Institutuko Zuzendariarena, barne-sustapeneko txandan Administrazio eta Zerbitzueta teknika postua betetzeko gauzatutako ariketaren behin-behineko emaitza argitaratzen duena.

2023ko maiatzaren 25ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 98. zenbakian, Etxepare Euskal Institutuko Zuzendariak 2023ko maiatzaren 17an emandako ebazpena argitaratu zuen. Ebazpen horren bidez, langile lan-kontratudun finkoen hautaketa-prozesurako deia egiten zen hurrengo kategorietan: Komunikazio Digitaleko teknika, Sistemen teknika, Administrazio eta Zerbitzueta teknika eta Administrazio laguntzailea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren zenbaki berean argitaratu ziren Administrazio eta Zerbitzueta teknika kategoriako lanpostuaren oinarri espezifikoak.

2023ko ekainaren 5ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 105. zenbakian, 2023ko maiatzaren 17ko ebazpenaren huts-zuzenketa argitaratu zen, izan ere, ebazpena hurrengo izenburuarekin argitaratu zen: "...lan-kontratudun finkoak hartzeko barne sustapen txandaren bidez hautaketa-prozesurako deia egiten baita Sistema eta Administrazio eta Zerbitzueta teknika kategoriarekin eta non oinarri espezifikoak onartzen diren." Baina ebazpen horren helburua Administrazio eta Zerbitzueta teknika kategoriaren oinarri espezifikoak soilik argitaratzea zen, beraz, sistema teknikaaren aipamena lekuz kanpo zegoen.

2023ko ekainaren 8an, Etxepare Euskal Institutuko Zuzendariak, 2023ko maiatzaren 17ko ebazpena aldatzen zuen ebazpena berri bat eman zuen. Ebazpen horrek, epaimahai kalifikatzailearen osaera aldatzen zuen, hain zuzen ere, epaimahaiburua Institutuko zuzendaria izan beharrean, edozein administrazio publikotako edo haren erakunde autonomo, sozietate publiko edo erakunde publikotako langile finkoa edo funtzionarioa izan ahalko zela aurreikusten zen. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2023ko ekainaren 13an argitaratu zen (111 zk.).

2023ko ekainaren 20an, Eusko Jaurlaritzako Iragarki Taula Elektronikoa, 2023ko ekainaren 15eko ebazpena argitaratu zen, non epaimahai kalifikatzailearen kideen izendapena publikatu zen.

Era berean, epaimahai kalifikatzailea osatzen zuten kideen izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2023ko ekainaren 28an (122 zk.).

2023ko ekainaren 26an, Eusko Jaurlaritzako Iragarki Taula Elektronikoa, 2023ko ekainaren 26ko ebazpena argitaratu zen, non behin betiko onartuen zerrenda eta azterketa data jakitera eman zen.

Epaimahai kalifikatzailea 2023ko ekainaren 30ean batzartu zen azterketaren emaitzak aztertzeko eta oinarri orokorretako 12. puntuaren ezarritakoaren arabera, Etxepare Euskal Institutuko Zuzendariari emaitza horien berri eman dizkio publikatuak izan daitezkeen. Hori dela eta, hurrengo

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.— Barne sustapen txandaren bidez, Administrazio eta Zerbitzueta teknika lanpostuaren hautaprobetan izangaiak lortutako puntuazioa argitaratzea (l. eranskinean jasoa).

Bigarren artikulua.- Hautagaiari puntuazioa erreklamatu nahi izanez gero, oinarri orokorretan aurreikusitako epea ematea espedientearen kopia eskatzeko.

Behin-behineko puntuazioa behin betikotzat joko da erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz.

Donostia, 2023ko uztailaren 3an

Etxepare Euskal Institutuko Zuzendaria,

IRENE LARRAZA AIZPURUA

I. ERANSKINA

N.A.N	PUNTUAZIOA
72****25G	44,03 Pt